



ataria

**Herriak herritik
hasi behar du bere bidea**

Kultura
*'Leo Sabanako errege',
Gurrutxaga anai-arreben
azken album ilustratua*

2019-11-29
1.152. zenbakia
107,6 fm ·
www.ataria.eus

ESKAINZA HANDIA

BLACK FRIDAY

14'9€
/hil



200 MEGA



MUGIKOR-LINEA
DEI MUGAGABEAK
ETA 20 GIGA BARNE



AISIA TB
ANDROID 4K
DUENA

TOLOSA



euskaltel

24 ordu kexarik gabe

Ez zait ozpinduta bizi den jendea gustatzen, bizitzaren edertasunarekin zaplaztekoka aritzen dena, eta nekagarriak zatzaizkit edozein txikikeriaren aurrean kexati agertzen direnak. Nekagarriak, kutsagarriak direlako. Nahikoa izaten da toxikoak diren pertsona bakan batzuk inguruan egotea, jendartea bera okertzeko.

«Logale naiz eta oraindik goizeko bederatzia dira. Gaur, gainera, ez dut siestarako denborarik. Berrito euria? Horrela ezin da asteburuko planik egin! Ederki, gaur ere ez dago motxila bere tokian, hau da hau gauzak tokiz mugitzeko mania...». Aldarte txarra eguraldiari leporatzea eta igandeak astelehen bezpera depresibo gisa bizitzea, edozeinentzako dira kaltegarri. «Non demontre aparkatuko dut? Kale osoa obretan dago eta! Hau marka, orain ere ilerarik geldoenean jarri naiz. Ara, beti bezala kontzertu osoko altue-na nire aurrean jarri behar...».

Kexaren eta kritikaren pandemia erraz zabaltzen da,

Beraz, egun oso bat kexarik gabe egoteko ahaleginak gure ahotik irteten diren hitzen kontziente izatera behartzen gaitu



IZARNE OLANO
KALAKARIA

baina ez gaitzala gaitzak esku hutsik harrapa. Gure kexen kontziente izateko ariketa bat proposatu zidaten ikastaro batean: 24 ordu kexarik gabe egotea. Ariketa hau, finean, tresna bat besterik ez da norberaren ahotsa entzuteko.

Erraza dirudi, baina proposatzen duten adituek alde zurretik abisatzen dute ez dela horren sinplea. Neronek asteak behar izan nituen ta-xuz bete ahal izateko. Kexatzera ohituta gaude, gure baitan daramagu, eta egun bat kontu txikiei jaramonik egin gabe igarotzea zaila da. Horren barneratuta daukagu, ezen askotan konturatu gabe kexatzen gara. Beraz, egun oso bat kexarik gabe egoteko ahaleginak gure ahotik irteten diren hitzen kontziente izatera behartzen gaitu.

Ariketak jarrera eraikitzailea bultzatu nahi du. Diotenez, gure ahotik irteten denaren kontziente bagara, gure pentsamenduak ezagutzeko gai izango gara. Ondo-rioz, pentsamenduak ezagututa, gure jokaerak aldatzeko aukera izango dugu. Horrela, sentimenduak eta ekintzak aldatzeko modua izango dugu. Hau da, helburua konponbideei indarra ematea da, kexaren beraren arrazoiari baino.

Zuen pentsamenduen jabe izan nahi baduzue, ariketa hau egiten saiatzea gomendatzen dizuet. Kexatzen jarraituko dugu, baina kontzienteki izan dadila, behintzat. Zorte on!

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943304346 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre

bai

zehitu eta
bataz-erantz

Bikain

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Irati Saizar



Itziar Agirrezabala arkitektoa eta Igor Zapirain alkatea, herritarren artean banatu duten galdetegiaren emaitzen berri ematen. J.M.

Gazteek Ibarran bizitzen geratu nahi dute galdetegi batean adierazi dutenez

04

Ibarrako Udalak banatutako galdeketa emaitzen berri eman du; Plan Orokorrean jasotakoa «koherentea» dela dio

Jon Miranda

Ibarrako Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra datozen zortzi urtetan garatzeko 350 etxebizitza berri aurreikusten ditu, zortzi gune ezberdinetan. Herriaren ekialdean, Eskuxarre markorane, Ibaitegi, Ibaigain 6, Argindegi 4 eta Toki Onan; Mendebaldean Gurutzeaga, Elduara behekoa eta Elduara goikoan. Bi zonaldeetan modu orekatuan eraikitzea aurreikusten du Plan Orokorra.

Ibarrako Udalak herritarrek herrian

bizitzen jarrai dezaten helburu argia du, Igor Zapirain alkatea nabarmendu duenez. Planean jasotakoa, herritarrek beharrek bat ote zetorren jakiteko, herriko biztanle guztiei galdetegi helarazi zitzaizen irailean, beraien etxebizitza asmoen inguruan jakiteko. «Galdetegiaren erantzunak eta Eus-tat-eko datuak harremanetan jartzen baditugu, ikusi da aipatutako etxebizitza kopurua egokia dela gazteen beharrek asetzeko eta herriaren garapen ordenatu bat emateko», esan du Zapirainek.

Galdetegi 125 pertsonen erantzun dute eta udalak adierazi duenez, batez ere gazteak izan dira parte hartzaileak. «Erantzunak koherenteak dira eta horrek fidagarritasuna ematen die emai-

tzei», gaineratu du alkatea. Parte hartzaile guztiei eskerrak emateaz gainera, jasotako erantzunek «planteamendu erreal» bat egiten lagunduko diela esan dute udal arduradunek. «Gainera, galdetegi honen bidez ikusi dugu herriko gazteek bertan bizitzen jarraitzeko gogoia eta asmoa dutela eta horrek gure herriaren etorkizuna bermatzen du, herri bizi bat izaten jarraitzeko».

Dauden beharrei erantzuteko etxebizitza kopuru gehiena lehen lau urtetan egin beharko lirake, Plan Orokorra aurreikusten duen bezala. Zapirainek ere adierazi du zein den udalaren nahia: «Orain, eraikitze lanak herriko gune ezberdinetan proportzionalki garatzen joatea da gure



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

asmoa. Hala, herria modu orekatuan hazten joan dadin, ekialdea eta mendebaldea txandakatuz». Alkateak agerraldian gaineratu du, dagoeneko, Gurutzeaga lur eremuan 32 etxebizitza garatzeko tramiteak hasiak direla.

Itziar Agirrezabala udal arkitektoak galdetegian jasotako emaitzen datu esanguratsuenak eman ditu ezagutzera:

%92

JABETZAN NAHI DUTENAK

Alokairuan. Etxebizitza alokairuan nahi duenen eskaera nabarmen txikiagoa da, %12a.

%46

GURASOEKIN BIZI DIRA

Lehen etxebizitza. Gurasoeekin bizi direnen gehienek (%82) jabegoan eskuratu nahi dute lehen etxebizitza.

225.000

%38 HORTIK GORA

Prezioa. Inkesta erantzun dutenen beste %38k, 150.000 eurotik gorako aukera markatu du eta %24ak kopuru horretatik beherako aukera adierazi du.

NOIZ?

ERANTZUN OREKATUA

Epeak. Heren batek 0-2 urterako nahi du etxea; beste heren batek 2-4 urteko epean; eta azken herenak 4-6 urteko epean.

%74

HIRU LOGELA ETA BIKOMUN

Tipologia. %20ak bi logeletakoa eskatu du.

%80

APARKALEKUITXIA

Aparkalekua. %80ak itxia nahiago du.

%60

EKIALDEAN NAHIAGO

Zonaldea. Mendebaldean %40ak nahiago du. Gogoko zonaldea eta gehien ordaintzeko prest leudekeena lategi da. Jarraian Elduaren, Gurutzeaga eta Malkorrane.

Inauterietan ferialekua erabiltzeko epea, zabalik

Udalak, astearteko osoko bilkuran, euskararen egunean antolatutako ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu du

Erredakzioa

A benduak 13 da azken eguna Inauterietarako plataforma egiteko Ferialekuan lekua eskatzeko. Eskaera egiteko derrigorrezkoa da konpartsa bat izatea eta plataformek gehienez, 2,5 metro zabal eta 7 metro luze izan beharko dute. Tolosako Udalak esan duenez, partzelak banatzerakoan Bellotan dauden eta Inauterietako Karrozak elkarte-kide diren konpartsek izango dute lehentasuna. Horiei esleituko zaie lehen-dabizi partzela, eta gainerakoak abenduaren 17an egingo duten zozketaren bidez esleituko dira. Esleipena lortzen duten konpartsek abenduaren 20tik aurrera jaso ahal izango dute giltza, kultur etxean, aurrez 150 euroko fidantza ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztuz. Ferialekua abenduaren 20tik martxoaren 13ra erabili ahal izango da, egunero, 08:00etatik 23:00etara. Udalak ohartarazi du martxoaren 16rako konpartsa guztiak Ferialekutik kanpo egon beharko dutela.

Konpartsek, hortaz, udaletxean egin beharko dute eskaera abenduak 13ko 14:15ak arte. Udaletxean edota www.tolos.eus helbidean eskuratu daiteke izen emate orria eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren zerrenda. «Udalaren helburua konpartsen sorkuntza sustatzea eta erraztea da, eta hala, Tolosako Inauterietan konpartsa landuak aurkezteko aukera ematea», esan du.

Bestetik, Inauterietan salmenta postua jarri nahi dutenek abenduaren 2tik 20ra egin beharko dute eskaera udaletxean. Eskaera egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa eta horien inguruko informazioa ere udaletxean bertan eskuratu ahal izango dituzte. Behin epea bukatuta, eskaera kopurua eskainitako postuak baino handiagoa bada, zozketa egingo dute salmenta mota edo produktu mota bakoitzeko.

Ilunbera joateko autobusak antolatu ditu Harituzek

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala izango da abenduaren 14an; eskualdetik autobusak aterako dira

Erredakzioa

A legiatik aterako da autobusetako bat eta Asteasutik bestea. Alegia-ko Ferreteriko geltokitik 15:00etan abiatuko da lehen autobusa eta Tolosako Zezen Plazan 15:05ean egingo du lehen geldialdia eta handik Anoetako Apaetxe baserri parera joango da 15:10ean eta Irurako ikastola parera, 15:15ean.

Asteasun, berriz, 15:00etan egingo dute hitzordua autobus geltokian. Ondorengo geldialdiak egingo ditu bigarren autobusak: 15:05ean Zizurkilgo Oria paper fabrikako geltoki parean, 15:10ean Villabonako Elduaen hizkuntza eskolaren aurrean eta 15:15ean Andoaingo Txoperako geltokian.

Bi autobusak finala bukatu eta 30 minutura aterako dira Ilunbetik Tolosaldera itzultzeko.

Izen emateak

Harituz bertsozale elkarguneak antolatutako autobusetan finalera joateko, 10 euro ordaindu beharko dira eta aurrez eman beharko da izena harituz.bzt@gmail.com helbidean edo 628 912 230 telefono zenbakian. Bestela herriz herri izena emateko aukera izango da: Alegian kultur etxean, Tolosan Gipuzkoako Bertsoszale elkar-tearen egoitzan, Anoeta eta Irurako liburutegietan, Asteasuko kultur etxean, Zizurkilgo Iriarte jatetxean, Villabonako Amasa kafetegian eta Andoaingo Ernaitza liburu dendan.

Oraingoz, Agin Laburuk eta Beñat Gaztelumendik dute ziurtatuta abenduaren 14ko finalean kantatzeko txartela. Tolosan, abenduaren 1ean, igande-erabakiko dira gainerako sei finalistak. 17:00etatik aurrera Usabalen jokatu da azken finalerdia eta ATARIA irratia- k zuzenean eskainiko du saioa.



Saskiratzeak Alegian

Elorri-Aldapa saskibaloi kluba abian jarri dute Alegian; oraingoz mutilen senior taldea osatzeko aukera izan dute

Imanol Garcia Landa Alegia

Saskibaloia gustuko duten gazte batzuk elkartu ziren Alegian, eta Patxi Rojorena jo zuten. Egun entrenatzaile denak Joseba Karrerarena jo zuen eta gazteekin batera Elorri-Aldapa kluba martxan jartzen hasi ziren.

Udaleko Kirol zinegotziarekin eta teknikariarekin jarri ziren harremanetan, proiektua aurrera eramatea posible ote zen ikusteko. Klubeko lehendakaria eta talde nagusiko bigarren entrenatzailea da Joseba Karrera: «Elorri frontoia daukagu, hainbat kirolekarako erabiltzen dena. Hitz egin genuen saskibaloiko federazioarekin, ea neurrien eta segurtasunaren aldetik frontoia erabiltzerik ote genuen jakiteko. Baiezkoa eman ziguten eta aurrera egin genuen». Alegiako Udalaren zein herriko denda eta enpresen laguntza jaso dute kluba abian jartzeko.

Hamabi jokalarirekin sortu dute gizonetako talde seniorra, alegiarrak denak, eta Gipuzkoako hirugarren mailan lehen denboraldia hasi dute. Bost jardunaldiren ondoren, bosgarren postuan daude; partida bat irabazi eta lau galdu dituzte. «Orain arteko



Elorri-Aldapa klubeko kideak. ATARIA

balantzea oso ona da», esan du Karre-rak. «Etxeko partidetara jende asko erakarri dugu frontoira, eta galdu ditugun partidak puntuazio baxuarekin izan dira. Gerra ematen ari gara, eta bestalde ikusten da partida gehiago jokatzea falta zaigula, eskarmentu gehiago izateko».

Emakumezkoen talde seniorra at-era nahi izan dute, baina ez dute lortu beharrezko jokalaria kopurua taldea osatzeko. «Taldea osatu ez bada ere, elkartutakoak astelehenetan entrenatzen dute. Lau hasi ziren eta egun zazpi daude dagoeneko. Helburua da datorren denboraldirako taldea ateratzea; gutxienez hamar jokalaria behar dira», esan du Karrerak.

Bestalde, kadete eta jubenil mailako gazteei deialdia egin diete, astelehenetan Elorri frontoira azaltzeko, 18:00etan. Karrerak azaldu duenez,

TALDE NAGUSIKO KIDEAK

Eñaut Zabala. Pibota.
Mikel Irazusta. Hegalekoa.
Erik Lekuona. Hegalekoa.
Asier Rojo. Joko antolatzailea.
Joseba Lasa. Hegal pibota.
Jon Azpeitia. Joko antolatzailea.
Lander Karrera. Hegalekoa.
Jon Irazusta. Hegalekoa.
Igor Agirre. Pibota.
Iñaki Karrera. Hegalekoa.
Xumai Aizpuru. Hegalekoa.
Aitor Agirre. Joko antolatzailea.
Patxi Rojo. Entrenatzailea.
Joseba Karrera. Bigarren entrenatzailea.

«asmoa da maila horretako taldeak sortzea, bai nesketan zein mutiletan, klubaren etorkizunari begira garrantzitsua iruditzen zaigulako».

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Eskalatzaileen topagune izango da Oargi, beste behin



Ugaitz Mozo, Oargiko rokodromoan, txapelketako kartelarekin. I.G.L.

Oargiko X. Boulder Txapelketa egingo da bihar elkarteko rokodromoan; haurren eta helduen lehiaketak izango dira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Hamargarren urtera iritsi da Tolosako Oargi elkartek antolatzen duen Boulder Txapelketa. Bihar egingo da, elkarteko rokodromoan, eta bi fase edo lehiaketa izango ditu: 10:00ak aldera hasiko da haurren txapelketa eta 16:00ak aldera hasiko da helduen txapelketa. Izena Oargin bertan eman behar da, eta epea ordu erdi lehenago zabalduko da. Haurrek, 4 eta 16 urte artekoak, ez dute ezer ordainduko eta helduek bost euro ordainduko dute. Mutil eta nesken artean ez da bereizketarik egiten txapelketan, Ugaitz Mozo antolakuntzako kideak azaldu duenez, «ez dago ezberdintasun handirik, eskaladan indar erlatiboa lantzen baita. Haurretan askotan izan dira neskak podiumetan».

Bai haurren txapelketan zein helduen txapelketan zazpi edo zortzi bide izango dituzte. Ondoen egiten duten bost eskalatzaileak finalera pasako dira. Finalean hiru edo lau bide izango dituzte. Iazkoan 50-60 parte hartzaile izan ziren haurren txapelketan eta 20 inguru izan ziren helduetan. «Parte hartzaileez gain, jende asko etortzen da eta giro ona izaten da», azaldu du Mozok. Gipuzkoa osotik etorri ohi dira eskalatzaileak.

Boulder txapelketa izanik, sokarik gabe aritzen dira parte hartzaileak. Sarriei dagokionez, Mozok azaldu du hainbat dituztela, «batzuk nahiko poto-loak, baina egunean bertan jakinaraziko ditugu».

Bestalde, eskalada praktikatzeko gogoaz sortzen zaionari aukera du Oargi elkarteko bazkide egiteko eta bertako rokodromoa erabiltzeko. «Egunero goizeko 09:00etatik 22:00etara irekita egoten da. Bazkide izateko nahiko prezio herrikoia ditugu, eta aukera dago nahi adina eskaltzeko, ordutegiaren barruan», esan du Mozok.

Euskal Herriko Igeriketa Kopa, Usabalen

Tolosa. Euskal Herriko Kluben Arteko Igeriketa Kopa jokatu da asteburuan Usabal igerilekuan. Zortzi talde indartsuenen arteko lehia gogorra espero da. Tolosaldea IKT bertan lehiatuko da, emakume eta gizonezkoen mailan. Saioak larunbatean eta igandean izango dira, eta goizean 10:30ean eta arratsaldean 17:00etan hasiko dira.

Soraa Oroimenezkoaren laugarren jardunaldia

Tolosa. Aurreko asteburuan jokatu zen Migel Soraa Oroimenezko Ogi Berri Txapelketaren laugarren jardunaldia. Jubeniletan, Zubeldia-Elosegi bikoteak 22-11 irabazi zion Aimar Egiguren-Emaldiri. Etorkizuneko mailan, Ruiz de Larramendi-Azkarragak 8-22 galdu zuten Unai Alberdi-Apezetxearen aurka. Elite mailan, Zubiria-Irazustabarrenak 22-16 irabazi zioten Urbieta-Gaskue bikoteari.

Iñigo Iribarren, Lauburu KE-ren fitxaketa berria

Ibarra. Lauburu K.E. Ibarra Iñigo Iribarren Tornaria jokalaria fitxatu du. C.D. Xota-tik datorren arren, egun Bigarren Mailako Unibertsidad de Malaga klubean ari zen jokatzen. Ibartarrak udan saiatu ziren Suarberri (Ultzama) gaztea fitxatzen, baina orduan utzita Malagara joatea erabaki zuen.

 BILLABONA FKE Arratzain futbol zelaia	
INFANTIL TXIKI MAILA	Larunbata 30, 10:00etan BILLABONA F.K.E. - DANENA K.E.
1. KADETE MAILA	Larunbata 30, 11:45ean BILLABONA F.K.E. - MUNDARRO F.K.E.
ONDOZKO KADETE MAILA	Igandea 1, 12:00etan BILLABONA F.K.E. - VASCONIA C.D.
ERREGIONAL PREFERENTE MAILA	Igandea 1, 16:30ean BILLABONA F.K.E. - ILINTXA S.D.


Altzo Azpiko bi euskaltzale

Altzo Azpik, bere txikian, bi euskaltzale handi eman ditu. Lehenengoa, gerra aurreko euskalgintzaren aitzindari eskolan elebitasuna sartzeko ahaleginean: Aita Migel Altzo. Bigarrena, frankismoaren hondarrean sortu zen mugimendu euskaltzalearen barruko ekintzaile eredugarria haurrentzat zinema euskalduntzeko borrokan: Marian Galarraga.

Anizeto Olano Galarraga, *Migel Altzo* kaputxinoa, Altzo Azpiko Olazabal-zaharra baserrian jaio zen 1896an. Edorta Kortadik dioenez, «hizkuntza da, Altxorrenzat, herri baten arima, arnasa. Maisu-maistrak, berriz, arima horren arkitekto eta eskultore dira. Anizeto Olanoren iritziz, lehen hizkuntza ama-hizkuntzan eskaini behar da. Etxeko hizkuntza hori ongi sendotutakoan hasi behar da bigarren hizkuntza irakasten, asignatura gisa».

Etxeko hizkuntza euskara zenean, eskolakoak ere hala izan behar zuen. Hizkuntza minorizatuen aldeko pedagogoa eta ekintzaileen argudio nagusia izan zen jokabide hori orduan, Estatu arrotzen hizkuntza politika are arrotzagoari aurre egiteko. Orain, berriz, gauzak alderantziz dira gehienbat: etxeko hizkuntza erdara dute haur gehienek, baina, hala ere, ez dago inolako kontrasteanik planteamendu pedagogikoan. Orduko etxeko hizkuntza minorizatu (euskara) zen, eta oraingoa hegemonikoa (erdara), eta hizkuntza hegemoni-

Eskolarik gabe euskarak ez dauka zer eginik gaur, nahiz eta eskolarekin ere ezin dugun bere (ahozko eta idatzizko) erabilera normalizatu.



koak ez dauka eskolaren jardun formalaren beharrik bere erabilera normalizatzeko, mintza minorizatuak ez bezala. Eskolarik gabe euskarak ez dauka zer eginik gaur, nahiz eta eskolarekin ere ezin dugun bere (ahozko eta idatzizko) erabilera normalizatu.

Marian Galarraga, Tinko euskara elkarteko lehendakaria da. Bikoizketak lana izan du, beste gauza askoren artean, bere jardun euskaltzalearen ardatza. Gau Eskoletako irakasle lanetan hasi zen euskaldunak beren hizkuntzan analfabetoak zirenean, eta erdaldun batzuk erdaraz ikasteari ekin ziotenean. Iñaxio Agirre du gogoa Galarragak urte haietako euskalgintzaren giroan, bereziki Lizardi elkartearen ingurumarian. Gero, aitzindari izan zen ia inork sinesten ez zuen

proiektu batean: filmak euskarara bikoiztu eta ikastetxe eta areto komertzialetan haur euskaldunen gozagarri paratzeko lanean. Haurren-


tzat erabat naturala zen gauza, helduentzat ez omen zen hala: zinea euskaraz ikustea, alegia. Gure belaunaldiaren euskalduntasun diglosiakoaren beste sintomak bat.

Onintza Odriozalak dioenez, «Migel Altzoren ekarpena zerbaitean azpimarratzekoa bada, hori euskal pedagogiaren barruan egin zuen lana da». Era honean aletu zuen euskaltzale kaputxinoak esko-

lan ele bitan jarduteko beharra: «Haur horiei bere jaio-hizkuntzan ez hazitzeak zer atzerapen eta eragozpenak dakartzkien horrela ikasiko dugu apur-apurka. Hori jakinez



JOXE MANUEL ODRIOZOLA
EUSKALTZALEA



ez zegoen euskarazko murgiltze-eredua antolatzeko xedez pentsatua, bai-
zik eta hizkuntza hegemonikorako
(erdararako) zubi gisa pentsatua bide
zegoen. Beraz, haurraren ama-hiz-
kuntzan hasi behar zen eskolan bat-
bateko eten gogorrik gerta ez zedin,
horrek «atzerapen eta eragozpenak»
zekartzalako euskal haur elebakarren

Marian Galarragaren hitzetan halako sentimendu gazi-gozo bat nabaritzen dugu bere proiektuak eman duen uzta baloratzerakoan. «Gaur egun 85.000 haur joaten dira urtero zinema euskaraz ikustera», baina badirudi horrek ez duela asebate berak hasieran zuen ametsa. Zer lortu da 25 urteko lan handiaren ondoren? «Ezer ez, ikusten duzu; areto komertzialetara joan, eta zenbat pelikula ikusten dituzu euskaraz? Oso gutxi lortu da, dena da sinbolikoa; noizean behin pelikula bat edo bi euskaraz umeentzat, noizean behin hemen egin den euskarazko pelikula bat...». Zerk egin du huts? «Diruak». Daukagun botere autonomikoak ez dauka nonbait dirurik euskarazko zinemagintza sustatzeko. Galdera berez dator: euskaldunon euskalduntasuna noiz normalizatuko da, bestek beste, euskal zinemarik gabe?

Erantzuna aspaldi bota zuen Rikardo Arregik (1966): «Alferrikakoa da euskaldunei eskatzea bere semeiei euskaraz erakustea, borondate onez ez da salbatuko euskara, euskara salbatuko da Euskal Herriko zineak, Euskal Herriko legea, Euskal Herriko gizartea [euskaraz] egongo den orduan, gainontzekoak gezurrezkoak dira».

Loari kendutako denbora. Askotarikoak izan daitezke arrazoiak. Normalean, estres puntu batekin neurtzen da.

Agenda

ABENDUAK 3 EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

ABALTZISKETA

Astearte, 3.

15:30. Hitzolariak jolasa eskola kanpoan hitzak txertatzeko buzoi bat jarri dute.

ADUNA

Astearte, 3.

Goizean zehar. Hitzolariak eskolan.

Arratsaldean. Umeak herrian zehar Altxorren Bila ibiliko dira. Ondoren, merienda.

19:00. Kultur aretoan, Xabier Leturiaren *Tarrapatan*, pandero baten ibilbidea liburuaren aurkezpena.

ALBIZTUR

Eskola kanpoan hitzak txertatzeko buzoi bat jarri dute.

ALEGIA

Asteazkena, 4.

19:00. *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia, kultur etxean.

ALKIZA

Astearte, 3.

16:00. Hitzolariak jolasa. Plazan edo frontoian.

16:30–17:00. Gaztaina jatea.

17:00. Euskara ikasten ari diren herritarrek euren jatorrizko hizkuntzan azalduko dute zergatik erabaki zuten euskaraz ikastea.

Jarraian. Herriko musikarien laguntzaz, hainbat euskal kanta abestuko dituzte.

Asteazkena, 4.

19:00. *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia, Galtzaundi euskara elkarteak antolatuta, Fagus Alkiza Interpretazio zentroan.

ALTZO

Astearte, 3.

10:00. Imaz Bertsolariaren Eskolan euskal karaokea, hitzolarien beroketa eta gaztain jatea.

18:00. Herriko plazan elkarretaratzea, hitzolariak, argazkia eta mokadua.

AMASA-VILLABONA

Astearte, 3.

11:30. Malkar plazan, hezkuntza eragileen ekimena. Fleming herri eskola, Zubimusu



MOSAIKOTIK HITZOLARIETARA, EUSKARALDIA TARTEKO

Galtzaundi ren ekimenez, Euskararen Egunaren bueltan, eskualdeko herriak tokiko euskarazko hitz zahar eta berrien bila jarri dira. Plazak hitz horiekin beteko dituzte, iaz Ahobizi eta Belarriprestekin eta duela bi urte mosaikoarekin egin bezala. **ATARIA**

ikastola eta Ernio-bea BHLren eskutik.

18:30. Malkar plazan. Herri ekimena herriko elkarte eta herritarrekin. Musika, bertsoak, abesbatza, pintxoak... (euria eginez gero Berdura plazan).

AMEZKETA

Larunbata, 1.

12:00. Hitzolarien jolasa plazan eta Amezketa Kantari herriko tabernetan barrena.

Astearte, 3.

15:00. Zumadi eskolako ikasleen ikuskizuna kultur etxean. Amaieran *Lau Teilatu* abestuko dute.

ANOETA

Astelehena, 2.

17:30. Euskara Bihotzetik Bizitzara. Leire Zinkunegik eskainita, ipuin kontaketa. Udal liburutegian.

ASTEASU

Igandea, 1.

11:30. Umeentzat, euskararen txantxangorria margotzea.

12:00. Hitzolarien jolasa, herriko musikari eta bertsolariekin.

Bukaeran. *Lau Teilatu* abestu eta grabatuko dute EITB maraotoirako.

BALIARRAIN

Igandea, 1.

18:00. *Dantza dokumentalaren emanaldia.*

Aurretik. Hitzolarien jolasa egingo da.

BERROBI

Astearte, 3.

17:30. Kantujira herrikoia.

18:00. Txokolate jatea eta Hitzolariak ekimena.

BIDANIA-GOIAITZ

Astearte, 3.

18:00. Kafe tertulia. Hitzolariak, garai bateko hitzez eta hauen esanahiez hizketaldia. Herritar guztien ekarpenak aberasgarri direlako, tertulian parte hartzera gonbidatu dituzte, liburutegian.

Ondoren. Bertan komentatutako hitzak, eskola kanpoko kortxoan jarriko dira bi egunez, nahi duenak irakurtzeko edo bestelako ekarpenak egiteko.

Asteazkena, 4.

21:00. Galtzaundiik eskainita *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia, balio anitzeko zentroan.

Ostirala, 6.

12:00–14:00. Kantu bira herrian zehar. Hasiera eskolako jolastokian emango zaio, segidan Goiatzera igoko dira eta ondoren, Bidaniara jaitsiz amaituko dute.

ELDUAIN

Astearte, 3.

18:00. *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia, kultur etxean.

GAZTELU

Astearte, 3.

17:00. Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur elkartearen merienda, Gazteluko hitz propioak biltzeko Hitzolariak ekimenaren barruan.

IBARRA

Larunbata, 30.

12:00. Hitzolariak. Hitzak jolas: zaharrek jaso eta berriak sortu. *Babarrun jatearen egitaraua 26-27 orrietan.

IKAZTEGIETA

Larunbata, 30.

18:30. Hitzolariak. Soziedadean hitz guztiak bildu, afari-merienda batekin.

IRURA

Astearte, 3.

15:30. Plazan, ikastolako haurren ikuskizuna eta adierazpena. Plazan, ikastolako haurrek euren hitzak zintzilikatuko dituzte.

Jarraian. Udalaren adierazpen instituzionala.

16:30. Plazan, hitzolariak lehiaketaren sari banaketa eta herritarrek euren hitzak ekartzeko aukera.

LARRAUL

Astearte, 3.

15:00. Saretzea hariekin eta hitzolarien jolasa.



LEABURU-TXARAMA

Igandea, 1.

11:00. Leaburuko plazan, hitzolariak.

LIZARTZA

Astearte, 3.

17:00. Hitzen zaindaria.

18:00. Ipuin kantatuak. Kontu-kontakantaldia.

19:00. Afari-merienda. Aurrez izen ematea. Abenduaren 2ra arte herriko hiru tabernetan.

TOLOSA

Astearte, 3.

18:30. Antzerki-bertsotxo ikuskizun inprobisatua. Amaia Agirrebetsolaria eta

May Gorostiaga antzezlearekin. Zerkausian.

ZIZURKIL

Astearte, 3.

15:00. Herrigunean, ipuin-kontaketa eta Hitzolariak San Millan ikastetxearen eskutik.

15:15. Zubimusu eta Otaño eskoletakoak plazara joango dira, hitzekin lanketa egitera eta harietan hitzak zintzilikatzera.

16:00. Iraitz Lizarragaren ipuin-kontaketa eta Hizkuntzaren Altxorren Bila.

16:30-19:00. Herriko elkartek, txandaka-txandaka, hitzak zintzilikatzen joango dira.

19:00. Amaiera-ekitaldia eta zintzilikatutako hitzen irakurketa.

ASTE BELTZA

%20_{ko} DESKONTUA

produktu guztietan

+ MONTURA DOAN

zure betaurreko graduatuetan

2019ko azaroaren 30era arte baliogarria. Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com





harpidedun izateak badu saria saridunak

1 LA PERLA

Bi laguntzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua

www.la-perla.net
Kontxako pasealekua z/g
943 458856

• Flori Martinez (Alegia)

ATARIAko bulegoan jaso behar da bonoa



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi laguntzako bina sarrera

• Kristina Arzallus (Alegia)
• Pili Otaegi (Larraul)

www.aquariumss.com
Ataria jarriko da harremanetan.



4 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi laguntzako bina sarrera

• Angel Oruesagasti (Amezketeta)
• Amaia Azkue (Berastegi)

Anoeta pasealekua, 24 DONOSTIA
943 46 44 04 www.eltxuri.com

Ataria jarriko da harremanetan.



3 IKASELKAR HEZKUNTZA ARGITALETXEA

Neguko katalogotik euskarazko jolas
eta liburuetan 50 euroko bonoa

• Izaskun Jauregi (Tolosa)



943 22876 • ikaselkar@ikaselkar.eus
www.ikaselkar.eus

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu



saridunak

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



**DELTECO GIPUZKOA
BASKET - AFANION CB
ALMANSA**
partida ikusteko

• Antonio Martiarena (Tolosa)

Abenduak 1, 18:00etan,
Jose Antonio Gasca pabiloian.

Ataria jarriko da harremanetan

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



Gipuzkoako Bertsolari
txapelketa: Tolosako
saiorako **bi sarrera**

• Pili Otegi (Tolosa)

Abenduak 1, 17:00etan,
Usabal kiroldegia.

ZUZENEAN

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako hirugarren
finalaurrekoa Tolosako Usabal kiroldegian

Jarraitu zuzenean Ataria irratiari.
Imanol Artola 'Felix'-ek gidatuta

ABENDUAK 1 • IGANDEA 16:45ean hasita

ataria 107.6 fm
irrati www.ataria.eus

Kapusai bat, bi sineste



Nahiko zalaparta izan genuen Francisco Francoren gorpua hobituk ateratzearekin orain hilabete inguru. Zer ez ote zuen egin gaitzusteke honek? Estatu kolpe militarra jo zuen armaz, eta 45 urtez estatu buru izan zen. Zenbat tortura, zenbat min, zenbat tiro, zenbat odol, zenbat neurrigabekeria... Urriaren 24an Eliza Katolikoko ordezkari batek azken agurra eman zion pertsona honi. Falangeko hautagai 1993 eta 1994. urteetan eta Erorien Haraneko priore egun. Zenbat biolentzia eta zenbat heriotza Santiago Canteraren hitzetan, eta batez ere, kristautasunaren izenean...

Testuinguru honetan gogora etorri zait datorren urtean -2020- Zuberoako foru sistema tradizionala suntsitu zeneko laurungarren urteurrena izango dela. Gertaera honen ingurumariko protagonista nagusi batek ere kristau kapusaia janzten zuen: Bernat Goienetxe *Matalaz*. Baina oso sineste ezberdina bere obratan!

1620. urtean Frantziako errege Luis XIVk -Nafarroako



**AITOR ATXEGA
MANEX BAT**

Luis III- Zuberoako lur komunak saldu zizkion Jean-Armand de Peyre jauntxoari. Hirugarren estatuak -nekazal-goak eta herri xeheak- lur hauek berreskuratzeko nahia izan zuen baina orduko 150.000 libera eskatu ziren, eta lur eta jabetza hauek komunitateari bueltatzeak eskatzen zuen neurrigabeko sakrifizioak, matxinada bat eragin zuen. Herria kexu, erregeak berriro erosi zituen lur hauek eta nori *kobratuko faktura?* Herriari! Hirugarren estatuak aurre egin zien Elizako agintariekin bat eginik zeuden Mauleko burgesia eta nobleziari. Luzeagoa eta arrunt interesgarri da istorio hau baina noan apaizaren ekimenera.

Matalaz Mitikilen sortu zen eta Bordelen egin zituen apaiz ikasketak. Bere herriko erretore zela, 1661eko ekainean, lehen aipatu matxinada gidatu zuen. Zuberoako jendarteak ukatu egin zuen nahitaezko *faktura-ordainketa* eta gorte erreala onartzen ez zuen sistema bat sortu zuen mitikildarrak. Matalazek hiru edo lau mila gizon bildu zituen eta aurre egin zieten hierarkia katolikoari, bertako nobleziari -Iruriko Kondea nagusi- eta Maule-Lexarrekoko burgesiari. Sohütan zenbait etxeri su eman zieten, hiriburu eta gaztelua setiatu zituzten... Matxinadaren momenturik gorenean badirudi 7.000 pertsona inguruk armak hartu zituztela!

Jauntxoek laguntza eskatu zuten Bordelen eta ziztu batean 100 zaldun eta 400 soldadu iritsi ziren Zuberoara. Urriaren 12an, «Herria, herria!» oihukatuz, ia gorrian borrokatu zuten matxinatuek, baina Sohütan garaituak izan ziren 400 pertsona hil ostean. Galtzaille gehienak Nafarroara deserriratu ziren. Matalazek ihes egin zuen baina Jentañe Dorretxean -Urdiñarbe ingurutan- atzeman zuten. Atxilo hartu eta Maule-Lexarrekoko gazteluan epaitu eta kondenatu zuten. Azaroaren 8an lepoa moztu zitoten eta gazteluan ikusgai izan zen bere burua zuberotarren eskarmenturako.

Mendeetan galdu ez den mezu bat utzi zigun Matalazek: *Dolü gabe hiltzen niz, bizia Xiberoarentako emaiten baitiüt. Agian, agian, egün batez jeikiko dira egiazko xiberotarrak. Egiazko eüskaldünak tirano arrotzen ohiltzeko.*

Matalaz eta Santiago Cantera; kapusai bera baina bi sineste zalantzarik gabe.



ETORKIZUNA, EREDU PROPIO BATETIK

Gizartea aurrera doan heinean, herriek ere garapen bat daramate. Bide horretan, herri bakoitzak bere egingo duen eredu propio bat osatzea ikusten du egokiena Tolomendik, hirietako garapen ereduari jarraitu beharrean, bakoitzak bere bidea egitea, alegia.

Irati Saizar Artola

Landa eremuko herrietan bada joera, oraindik ere, hiri handiagoetara bizitzera joateko, edo bai behintzat haiei begira jartzeko. Herri txikien edo landa eremuko herrien etorkizuna bermatzea da, ordea, besteak beste, Tolomendi Landa Garapen Elkartearen nahia.

Duela 20 urte egindako Landa Garapenari buruzko Legea berritzeko asmoa erakutsi du, aurtun, Eusko Jaurlaritzak. Legearen aurreproiektu horrek albo batera uzten ditu soilik landa garapena bilatzen duen eta nekazaritzara nabarmen lerratuta dagoen politikak, eta lurralde ikuspegira igarotzen da. Tolomendiren ustez, ordea, «ezin dugu itsutu hirien garapen eredua gure herrietan besterik gabe kopiatzarekin, horrek ez gaitu inora eramango».

Azken urteetan, *smart* hitza edozein lekutan eta edozein kontzepturen alboan irakur daiteke: adimentsu esan

nahi du. Hiriei ere deitu ohi zaie adimentsu, eta hiri horiek *big data*-n oinarritutako teknologiak erabiliz funtzionatzen dute. Hiriak bai, baina, herriak, eta Tolosaldearen kasuan, landa guneko herriak, izan daitezke adimentsu?

Galdera horri tiraka idatzi zuten artikulua bat Paul Soto eta Enrique Nieto adituek, herri adimentsu batek nolakoa behar duen izan azaltzeko. Tolomendiko Iker Karrera kudeatzailea bat etorri da haiek proposatutakoarekin: «Herri adimentsuak ez dira hiri adimentsuen parekoak». Hiriek teknologia dute helburu eta *big data* horretan zentratzen dira, eta sarri, herri txikiak handien menpe egoten dira: «Hiriek bidea markatzen dute, eta herriak atzetik doaz, baina hori ez da bidea», dio Karrerak.

Azken batean, Tolomendiko kudeatzaileak argi ikusten du hirien eta herrien artean «arrakala digitala» badagoela.



«Landa eremuko herrietan, adibidez, banda zabalaren garapena eta teknologiaren garapena askoz ere txikiagoa da, ez daukagulako azpiegitura nahikorik eta jendearen formazio maila ere apalagoa delako», dio Karrerak.

Bestalde, ordea, herri txiki askotako joera «okerra» hiriak markatzen duen erritmoari jarraitzea dela dio: «Hiriaren garapen eredu herri txikietara eraman nahi dugu, bakoitzak bere eredu propioa garatu beharrean». Horixe da Tolomendik bultzatu nahi duena: landa eremuko herriek garapenerako eredu propioak martxan jartzea. «Izan ere, ez dugu inoiz hiria harrapatuko, hiria beti joango zaigu aurretik».

Hiri adimentsuek teknologia oinarri izanda funtzionatzen duten neurrian, herri adimentsuek etorkizuna euren esku hartzen dute, «baina ez beti teknologia digitalaren la-

1 «Herri adimentsuek pertsonekin izan behar dute zerikusia. Landa herrietako pertsonak beraiek izango dute inizatiba, eta etorkizunera begirako bidea beraiek erabaki eta markatuko dute».

2 «Adimentsua izateak teknologia digitalak erabiltzea esan nahi du, baina betiere aproposak direnean, ez modan daudelako. Landa herrien beharretara egokitutako teknologiak erabiliko ditu».

3 «Zure herritik harago pentsatzea da adimentsu izatea. Leku askotan gertatzen da bakoitzak bere zilborrari soilik begiratzea. Finean, helburua, elkarlana egitea da inguruko herriekin, lurraldeekin, eta indarguneak eta loturak bilatzea, baita hiriekin ere».

4 «Lankidetzaz eta aliantza modu berriak eraikitzea esan nahi du adimentsu izateak: nekazarien artean, nekazarien eta beste landa aktoreen artean, herrien artean, sektore pribatua eta publikoaren artean. Behetik gora eta goitik behera, bi zentzutan komunikatuta egon behar dute».

5 «Adimentsua izateak zure kabuz pentsatzea esan nahi du. Ez dago herri adimentsuen modelo edo soluzio zehatzik. Herritarrek aktibo lokalen balantzea egin beharko dute, inizatiba hartuta.

guntzarekin», argitu du Karrerak. Sotok eta Nietok artikuluan jaso bezala, Karrerak ere bost elementu identifikatu ditu landa eremuko herrien inguruko definizioa ematerako garaian:

Hiriaren bidetik ihesi

Bakoitzak bere herrian bizitzen jarraitzea erabaki badu, zerbaitegatik izango dela dio Karrerak: «Landa eremuan bizi denak kontzienteki erabaki du hor bizitzeak zenbait gauzei uko egitea suposatzen duela, baina beste hainbat abantaila izango dituela». Izan ere, herri batek ez du hiri batek duen guztia, eta ez du inoiz izango. Kontrako zentzuan ere, herri batek duen guztia izatera ez da sekula iritsiko hiria. «Adibidez, hirian bizi denak ordu erdira ez dauka Txindokira joateko inongo aukerarik».

Modu horretan, herri txiki batek dituen elementu edo balio positibo guztiak identifikatu, eta horiek indartzen saiatu behar duela esan du Tolomendiko kudeatzaileak. Herri baten garapen prozesu horretan, «askotan, zerbitzuak izaten ditugu buruan», dio. «Udalei zerbitzuak eskatzen dizkiegu, baina ezintasun batean sartzen dira, jendearen eskariak ezin erantzunda». Landa eremuko herri askok beraien etorkizuna hipotekatzen dutela dio, zerbitzu eskari horiekin. «Gaur egun, hiriek daukatena lortzen saiatuko bagina, hemendik hamar urterako lortuko genuke, baina une horretan hiriak duena beste zerbaite izango da, eta hura nahiko dugu; eta hori, ezi-nezkoa da», argitu du.

Fokua, ordea, beste bat behar du izan: herriko baliabideak identifikatuz eredu propioa duen herri bat osatzea. «Eredu propio bat garatzeko aukerak aprobeztatu behar

**«Adibidez, hirian
bizi denak ordu erdira
ez dauka Txindokira
joateko inongo
aukerarik»**

IKER KARRERA, TOLOMENDI



dira: ekonomia berdea izan daiteke edo karbono gabeko ekonomia batean, elikadura sistema iraunkor bat bestela».

Landa eremuan azken urteetan aktibitate ekonomiko nagusiak izan direnetan, besteak beste, nekazaritzan edota basogintzan, aukerak egon litezkeela dio Karrerak, «nos-

ki, horretan apustua egin eta sines-ten bada». «Batuetan oraindik kosta egiten zaigu nekazaritza garapen ekonomikorako aukera bezala ikustea, baina, adibidez, elikadura sistema iraunkor bat garatu nahi bada, ezinbestean inguruko baratzetatik eta inguruko ekoizpe-nekin lan egin beharko da».

Beraz, herri bakoitzak dituen baliabideak zein diren jakin eta ahalik eta etekin gehien nola atera dakio-keen asmatzean dago gakoa. Karrerak

dio ez dagoela herri guztientzat balio duen errezetarik. Baina eredu propio batetik abiatuta, landa herriek etorkizuna segurtatuta dutela dio.

Horrelako eredu bat osatzen ari dira, esaterako, Orexan. Herriko bi elementu garrantzitsu identifikatu dituzte bide horretan: kooperatiba eta ostatua. Horiek ardatz hartuta,



herri eredu propioa eraikitzen ari dira. Bestalde, Oresa Bizirik izeneko herri marka sortu dute, eta herri izaera eta nortasuna definituta, herri osoa barne hartzen duen proiektu batekin ari dira lanean.

Funtzio osagarria

Gaurko gizartean, funtzio bat betetzen dute herri txikiek. Karrerak dio, beraientzat ez ezik, gizarte osoarentzat beharrezkoak diren funtzioak ere bete litzaketela herri horiek, eskutik joan daitezkeela inguruko herri nahiz hiriekin. «Adibidez, hiri batek garapen iraunkor bat nahi badu, ezinbestean landa eremuarekin batera egin beharko du lan, izan ere, hiriek ez dauzkate baliabideak elikadura hornitzeko, energia berde bat lortzeko».

Hiriaren osagarri izan daitezkeen baliabide horiek landa eremuetan daude, beraz, eskuz esku egin beharko dute lan beraiei iraunkortasuna bermatzeko. Kate baten modukoa dela azaldu du Karrerak: «Landa eremuari aukera esparru bat sortzen zaio, gizarte osoari begirako funtzio bat betetzeko, eta hortik, ekonomia bat eta diru sarrera bat sortzeko, ondoren, herritarrei beste hainbat zerbitzu eman ahal izateko». Bide horretan, aldaketa digital guztiak ahalik eta gehien aprobetxatu beharko dituzte landa eremuko herri horiek.

«Gaur egun, hiriek daukatena lortzen saiatuko bagina, hemendik hamar urterako lortuko genuke, baina une horretan hiriak duena beste zerbait izango da, eta hura nahiko dugu; hori ezinezkoa da »

IKER KARRERA, TOLOMENDI

«OREXAN BIZI DIREN HERRITARRAK BERE HERRIAZ HARRO EGOTEA LORTU DUGU»

18

ENEKO MAIOZ
OREXAKO ALKATEA

Herritarrekin bildu eta etorkizunera begira herri proiektu bat osatzen ari dira Orexan; herritarrak zainduko dituen eredu baten alde egin dute.

Azken urteetan garapenerako eredu jasangarri bat osatzeko lanetan aritu dira Orexan. Beharrak identifikatu eta herri proiektu bat jarri zuten martxan: Oresa Bizirik. Eredu propio bat izatearen garrantziaz aritu da Eneko Maioz Oresako alkatea.

Garapen eredu propio bat lortzeko lanean aritu zarete Orexan. Zer da egin duzuen?

Lehenengo hausnarketa bat egin genuen. Garapen eredu horretan, iruditzen zitzaigun gureak ezberdina izan behar zuela. Askotan, herri txikien eta herri handiagoen garapen ereduak parekatu nahi izaten dira, eta nik uste oso ezberdinak direla. Kontziente izan behar dugu, gure kasuan, herri isolatu bat izateak bereizitasun batzuk ematen dizkigula. Errealitate hori zein zen ikusita, plan bat egin genuen Oresa hemendik aurrera nola irudikatzen genuen ikusteko.

Zeintzuk izan dira zuen helburuak?

Herri proiektu bat sortu dugu Oresa Bizirik izenekoa, garapena modu iraunkorrean egiteko. Herrian garrantzitsuak izan daitezkeen kontzeptuak hartzen ditu, gure kasuan kooperatiba, ardi esnea erabiliz produktuak egiten

dituena, eta ostatua izango litzateke beste eragile ekonomikoa. Horretaz gain, garbi ikusten genuen Oresa bezalako herri batek jasangarritasunean eduki behar zuela bere garapena, eta hor bereziki energiaren gaia landu dugu, eta baita ere ingurunea ezagutu eta zaintzeko beste ildo bat. Horrekin, gure eredu propio bat lantzen ari gara.

Zein pauso eman dituzue?

Agenda 21 berritzea tokatu zitzaigun eta horretarako herritarrekin lantalde batzuk eginak genituen. Hortik atera zen zerbait sakonagoa eta zehatzagoa egiteko ideia. Ideia hori garatzen joan zen talde ezberdinetan, bilkura ezberdinak eginez, bai adinekoekin, bai gazteekin, herriaren sentipen hori lehen eskutik ezagutzeko. Bakoitzak bere beharrak ikusten ditu, akaso, adineko bat mendi pista

bat itxita dagoela pentsatzen ariko da eta lehen beti irekita egoten zela, eta gazte bat arituko da pentsatzen Orexan bizi nahiko lukeela eta ez daukala nola. Interes ezberdin horiek batu egin behar genituela ikusi genuen, eta ariketa oso interesgarria izan zen. Horrek ekarri gaitu gaurko agertokira, non garatzen hasi garen eta jendeak ere ikusten duen bere parte hartze zuzen bat proiektu horretan.

«Oresa bezalako
herri batek
jasangarritasunean
eduki behar du bere
garapena»



I. SAIZAR

Herritar guztiak hartu dituzue kontuan, beraz.

Bai, prozesuan egin genuen beste lanketetako bat komunikazioarena izan zen. Herriko marka bat osatzen saiatu ginen, herriak eskaintzen dituen gauza guzti horiek balorean jartzeko. Orexa oso parte hartzailea da, landa gunean kokatua dago, baina tira, askotan ez dugu lortzen hori guztia transmititzen. Bereziki, gure ustez, kanpora begirako ariketa bat egin genuen, baina konturatu ginen barrura begira eta herritarrei begira pedagogia lan handia egin duela, guztiak kontziente izan garela benetan Orexak eskaintzen duena askoz gehiago dela. Demonstratu dugu gure txikitasunetik gai batzuetan lehen maila batean egotea lortu dugula.

Helburu batzuk fisikoki agerian daude, baina izan dira begi hutsez ikusten ez direnak ere.

Bai, lehenengo helburuetako bat herritarren arteko kohesio hori da. Nolabait lortu duguna da Orexan bizi diren herritarrek harro egotea bizi diren herriaz, herri dinamiko batean bizi direlako. Uste dut gauza fisikoez gain, herri izaera horretan ere aurrerapauso handia eman dugula.

Zer falta zaizuela uste duzu garapen bide horretan?

«Gure txikitasunetik eredu izan gaitezke zenbait proiektuekin, adibidez, ostatuarekin»

Orexak Bizirik proiektuarekin gabiltzala izango dira lau-bost urte, eta oraindik asko daukagu egiteko. Ez da goize-tik gauera egiteko proiektu bat. Nik uste lagundu digula zentratzen egin beharreko lanetan. Orain, adibidez, energetikoki burujabetzara gerturatuko gaituen proiektu batean, baina kooperatibarekin ere elkarlanean ari gara proiektu ezberdinak aurrera eramaten. Nik uste lan hau ez dela inoiz amaitzen, ikuspegi kontua dela. Gure txikitasunetik eredu izan gaitezke zenbait proiektuekin, adibidez, ostatuaren gaiarekin ikusi dugu kanpotik jende asko etorri zaigula proiektua bera ezagutzera. Horrek esan nahi du zerbait ezberdina egiteko gai behintzat izan garela. Horrek herri nortasunean puntu handi bat ematen du eta jendeak gustura hartzen ditu horrelako ekimenak.

Garapen ereduak bakoitzak berea egin behar du, bereziki landa guneetako herriek. Azken batean, garapen ereduak bereziki teknologiarik oso lotuta dago, baina uste dut herri

txikiek sekulako aukerak dituztela horrelako proiektuak aurrera eramateko. Horretarako ezinbestekoa da herritarrekin batera lan egitea.

Merezi du herri eredu bat sortze-ak?

Zalantzarik gabe. Errezeta magikorik ez da existitzen, eta ez bada existitzen, are gutxiago hiri handienetakoak landa ingurunerako. Klasiko bat izan da landa guneak hiri gunea-ri lehengaiak eta beste zerbitzu ba-

tzuk emateko egotea. Hori historikoki horrela izan da, baina, guk ere demostratu dugu bidea eginez, beste gauza batzuk ere posible direla, eta izan gaitezkeela eredu. Landa eremua inoiz ez da hirigune izango eta inoiz ezin dugu beraien parametroekin konparatu. Hor dago gakoa. Errezetarik existitzen bada, bakarra da: herritarrekin egitea, eta bakoitzak berea egitea.

“

Hasieratik asmo xumeko istorio txikitxo bat ari ginen kontatzen

MAITE ETA MIKEL GURRUTXAGA
'LEO SABANAKO ERREGE' LIBURUKO EGILEAK

Lau eskura ondu dute 'Leo sabanako errege' liburua Gurrutxaga anai-arrebek. Irudien egiletza Maite-ri dagokio eta letrena berriz Mikeli. Dagoeneko liburu dendetan eskuragai dago.

”

Jon Miranda-Leyre Carrasco

Amezketako gurrutxagatarrak anai-arrebak dira eta Mikelen testuak eta Maite-ren ilustrazioak gurutzatuz sortu dute album ilustratua. Leo izeneko katua da protagonista, handikiro bizi dena. Alegia, bere burua lehoitzat hartzen du eta etxea berriz, bere erreinua. Baina liburuak aurrera egin ahala, kontuak aldatuko zaizkio protagonistari.

Donostian, Elkar dendan aurkeztu zenuten liburua. Zer inpresio jaso duzue ordudanik?

Maite Gurrutxaga. Ondo. Iritsi berria da liburu dendetara. Momentuz lagunen, inguruko jendearen eta familiaren *feedback*-a soilik izan dugu, baina bestea oraindik iritsiko dela espero dugu.

Mikel Gurrutxaga. Oraindik denbora pixkat eman-go diogu.



Non du sorburua proiektu honek? Hau da, non du abiapuntua liburuak?

Maite. G. Marrazki txiki batekin hasi zen, nik eginda nuen zirriborro txiki batetik, alegia. Marrazkian katu bat ikusten zen ume batekin erlazionatzen. Etxe batean katua ari da esnea edaten bere potetik eta umea gerturatu eta katuaren pote berdinetik edaten hasten da. Bertan, jolas bat zegoela ikusi nuen eta Mikeli proposatu nion zerbait egitea, proiektu bat hastea, alegia.

Mikel. G. Maiteri tarteka galdetzen diot zertan dabilen. Momentu hartan, Maitek azaldu bezala, marrazkiak erakutsi eta pentsatu genuen hortik tiratzea genuela eta modu horretan sortu zen proiektua.

Gisa horretara sortu zenuten Leo izeneko katu protagonista. Mikel, aurkeztu diezagukezu Leo katu hau nolakoa den? Nola definituko zenuke osatu duzuen pertsonaia?

Mikel. G. Katua lehoi baten tankerakoa da. Etxean kategorian bizi da. Denboran zehar jarraipen bat egingo diogu katuari, gertatzen zaionaren berri emango dugu eta buruhauste batzuk ez zaizkio falta denbora honetan. Beraz, arazo horiei irteera bat nola eman pentsatzen hasi ginen.

Maite. G. Asmoa katua egoera konkretu batera eramatea zen. Bagenekien katua izango zela protagonista baino ez genekien istorioak non bukatuko zuen. Beraz, egoera konkretu desberdin batzuetan jarri genuen eta bukaerako erantzuna lortu duguna izan da. Ariketa hori egitearen ondorio bat bezala lortu dugu.

Sabanako erregea aipatzen duzue, lehoia ere ageri da. Zergatik konparaketa hori edo zergatik egin nahi izan duzue ispilu joko hori?

Mikel. G. Esango nuke badakigula katuek alderdi basati bat dutela, hau da, ehiztari sen hori, beti adi dau de haien inguruan gertatzen ari denaz. Iruditu zitzaigun joko hori lehoiaren bidez egitea geneukala, hau da, biak parekatu eta alderdi basati hori azalduz. Bestetik berriz, etxeko katu bati buruz ari gara, eta hori irudien bidez erakutsi genezakeela pentsatu genuen. Katuaren izaeraren bi alderdi horiek irudietara eramateko orduan hainbat buruhausterekin topo egin genuen.

Irudiei dagokionez, zuk osatu dituzu, Maite. Zer nolako irudiak jaso dituzue liburu hone-tan? Nola osatu dituzue ilustrazioak?

Maite. G. Mikelek azaldu duen moduan, azkenean irudiak nola egin behar genituen ahal eta hoberen azaltzeko, istorioekin kontatu nahi duguna edo testuekin hoberen txertatuko diren irudi horien bilaketa bat bezala izan da. Horregatik lehenengo plano asko ikusten dira. Zinematografikoa da, katuari jarraipen moduko bat egiten zaio. Azken finean, asmoa hori izan zen, album ilustratu baten izaera izatea. Orduan, bai testuak baita irudiak ere minimo-ra eramaten saiatu gara, gero elkar txertatuz osotasun bat sortzeko. Hori ondo txertatuta egoteko eta bata besteari arnasa emateko zein alderantziz, halako ari-

«Liburua txiki samarra bada ere, patxaran hartu genuen, presarik gabe. Hori azkenean, liburuaren emaitzarentzat ona izan da»
MIKEL GURRUTXAGA



keta horren ondorio izan dira bai testuak baita irudiak ere.

Elkarrekin lotze horrek buruhauste batzuk eman dizkizuela aipatu duzue. Nola egin duzue lan? Zenbat denboran ondu duzue lan hau? Nolakoa izan da sortze prozesua?

Maite. G. Ia-ia urte eta erdi eskaini genion. Testuak jada bage-neuzkan baina irudiak ez, beraz, Eusko Jaurlaritzako beka batera aurkeztea erabaki genuen irudiak landu ahal izateko. Denera, urte eta erdi eskaini diogu. Interresgarriena izan da gertu egote

horrek ahalbidetu digula bata bestearen lana denbora errealean ikustea. Mikel testuekin buru-belarri zebilen bitartean, ni irudiekin nenbilen. Ondoren, bi horiek txertatzen saiatzen ginen eta aldaketa posibleak ikusten genituen. Alde horretatik interesgarria izan da.

Mikel. G. Liburua txiki samarra da, baina patxaran hartu genuen, presarik gabe. Hori azkenean, liburuaren emaitzarentzat ona izan da.

Formatuari dagokionez liburu txikia dela aipatu duzue. Horrek mesede egiten ahal dio liburuari?



Zergatik aukeratu duzue ohikoa baino formatu txikiagoa?

Maite. G. Hasieratik asmo xumeko istorio txikitxo bat ari ginen kontatzen. Beraz, liburuak txikia izan behar zuen. Gainera, orain konturatu naiz planoak gertukoak direla eta hain zehaztasunean jasotakoak direnez, liburuari mesede egiten dio. Lehenengo begi-kolpean irudiak ikusi egiten dira txikitasun horretan eta azken batean, horretan antzematen da tamainak mesede egin diola.

Zu Mikel, konforme emaitzarekin?

Mikel. G. Bai, nire aldetik bai. Niri Maiteren lanetik gehien gustatzen zaidana bere marrazteko era da, irudi oso narratiboak marrazten dituela, alegia. Irudi aldetik kategorian geratu direla iruditzen zait eta bi istorio horiek ondo uztartzea lortu dugula gainera!

Orain jendeak irakurtzea besterik ez da falta. Zeni aholkatuko zeniokete liburua? Umeentzako bakarrik ote da album ilustratu hau ala helduek ere irakurri dezakete? Zer iritzi daukazue?

Maite. G. Nik uste dut edozeinentzako izan daitekeela. Halako liburuak gustatzen zaizkion edo gustatu

«Liburuak badu kapa bat baino gehiago jolaserako, beraz edozeinentzako izan liteke aproposa»

MAITE GURRUTXAGA

ahal zaizkion edozeinek irakurri dezakeen liburu bat da. Editoreak ere hala esaten zigun, liburuak kapa batzuk zituela ikusten zuen eta orduan irakurlearen aukera da azalean gelditzea edo lehenengo irakurketan ikusten ez den hori bigarrenengoan edo hirugarrenengoan topatzen joatea. Uste dut baduela kapa bat baino gehiago jolaserako, beraz edozeinentzako izan liteke aproposa.

Irakurlearen arabera hainbat irakurketa egon daitezke honako albumean, ezta?

Mikel. G. Seguruenik ume batek egingo duen irakurketa eta heldu batek egingo duena desberdina izango da. Umeak irudiei asko erreparatuko die eta helduek dena beste gauza batzuei erreparatuko die.

‘Leo Sabanako errege’ album ilustratua kaleratu duzue, orain liburu dendetan egongo da. Zuek ere bueltatxo txikiren bat egiteko asmoa duzue Durangoko Azokara, han salgai izango da, ezta? Han egoteko asmoa duzue?

Maite. G. Aurten ni kanpoan harrapatzen nau. Ez dakit Mikel animatuko den. Momentuz ez dugu ezer lotu.

Mikel. G. Bisitari moduan agian bai.



*Abenduan
asteburuetan zabalik*

EGUZKITZA

Abenduaren 1ean
irekitzen dugu sagardotegia

Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko:

TEL: 943672613

Usabal Auzoa, Amaro 20400 TOLOSA (GIPUZKOA)

JAN TOLOSALDEA BIDEO LABURREN LEHIAKETA

Bozkatu gehien gustatzen
zaizun bideoa Ataria.eus-en
azaroaren 30a bitarte

ZER KOLORE
DU BERTAKOAK?





Tolosako Babarrunaren ekoizleen XXVI. lehiaketa. IRATI SAIZAR

Babarrunaren hurrena

Tolosarrok badugu, nazioartean harro egotea eragiten digun ondasun preziatu bat: babarruna. Duela gutxi bizi izan dugu babarrunaren egun handia eta oraindik egun horren usaina mamurtzen ari garen honetan, babarrunaren kimikak ere badu bere txanda Zientziaren Talaian. Zehatzago esanda, guztiok jakin nahi duguna zera da: zergatik sortzen dituzte neurri eta usain izugarriko puzkerrak babarrun maitagarri eta gozagarri horiek? Goazen kimikara erantzunaren bila.

Tolosako babarrunek, *Phaseolus vulgaris* espeziekoak direnak, Mesomeriketako –Mexiko inguruan– eta Andean dituzte haien arbasoak; izan ere, bertan etxekotu ziren lehen aldiz duela 7.000 urte-edo. Handik pixkanaka zabaltzen joan ziren eta konkistatzaileen garaian iritsi ziren Europa eta, jakina, Tolosara. Oro har, lekaleak proteina iturri interresgarriak dira eta, ziur asko, haragia egun berezietarako bakarrik gordetzen zeneko

garai haietan, babarrunak jatea aukera ona zen. Tolosako babarrunen ezaugarri dagokienez, 100 gramok 340 kcal inguru dituzte. 100 gramo horien %25 proteinak dira, %31 zuntza, %60 karbohidratoak –horien erdia uretan disolbagarriak diren zuntzak dira– eta %1,2 gantzak. Etimologikoki, babarruna hitzaren jatorria babaren hurrenatik dator. Dirudienez, Ameriketarik babarrunak iritsi aurretik babak eta beste landare lekadunak jaten genituen eta, babarrunak iritsi zirenean, babaren hurrenak ziren lekadun haiek. Bada, babak bere hurrena izan bazuen, babarrunak ere badauka bere hurrengoa: puzkerra.



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN
DOKTOREA ETA
ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

Guztiok sortzen ditugu gasak geure hesteetan –eguneko litro bat, gutxi gorabehera– eta horren arrazoia hesteetan ditugun bakterioak dira. Bakterioek digestioarekin laguntzen digute; izan ere, gure entzimek onartzen ez dituzten konposatuak bakterioek transformatzen dituzte. Lekaleek, eta bereziki babarrunek, karbohidrato

kantitate handiak dituzte eta gure digestio entzimak ez dira gai horiek metabolizatzeko. Horren ondorioz, karbohidratoak eraldatu gabe iristen dira hesteetan dauden bakterioengana. Horiek arduratzen dira guk egin

Etimologikoki, babarruna hitzaren jatorria babaren hurrena-tik dator [...] Bada, babak bere hurrena izan bazuen, babarrunak ere badauka bere hurrengoa: puzkerra.

Puzkerrak botatzea normalizatu egin behar da. Digestio-aparatua modu egokian lanean ari dela adierazten du; izan ere, babarrunak jan ondoren puzkerrak botatzea normala da.

ezin duguna egiteaz. Karbohidratoen barruan, badira puzker-sorkuntzari dagokionez nahiko deserosoak diren batzuk: oligosakaridoak. Oligosakaridoak hiru, lau edo bost molekula txikiagoz osatutako konposatuak dira. Bakterioek karbohidrato horiek metabolizatzen dituztenean, gas ekoizpen handia eragiten dute. Oligosakaridoen artean, alfa-galaktosidoak identifikatu dira arriskutsuenen artean –puzker-arriskuaz ari naiz, noski–. Zorionez, Tolosako babarrunak beste babarrunek baino alfa-galaktosido gutxiago dituzte: %3,6 eta %4,3, hurrenez hurren. Hala ere, ikerketen arabera gas-iturri nagusia ez da hori. Hain zuzen ere, gas gehien sortzen duten konposatuak babarrunen zeluletako paretetan daude. Horiek ere karbohidratoen taldekoak dira eta babarrunetan kantitate oso handitan daude.

Oligosakaridoen kontzentrazioa murrizteko babarrunak beratzen egon diren ura alda daiteke, edo egosketa denbora luzatu daiteke. Zenbat eta denbora gehiago egon ur berotan, oligosakaridoak apurtzen doaz eta hortaz, ez dira bihurtzen gure hesteetan dauden bakterioen jaki. Edozein kasutan, prozesu horiek babarrunen zapo-reari kalte eragiten diote. Gainera, puzkerrak botatzea normalizatu egin behar da. Digestio-aparatua modu egokian lanean ari dela adierazten du; izan ere, babarrunak jan ondoren puzkerrak botatzea normala da. Kimikak dio.

Agenda

OSTIRALA AZAROAK 29

AMASA-VILLABONA MENDI ASTEA

20:00. Mendiko eskia Oberland-en. Gorka Lopez.

Ondoren. Argazki rallyko sari banaketa.

ANOETA HITZALDIA

17:15. Indarkeriaren aurrean saretze feminista! Nolako harremanak eraiki nahi ditugu? hitzaldia, Gaztetxean.

BIDANIA-GOITZ TIPI-TAPA

10:30. Herriko boluntarioen laguntzarekin ibilbideak kalean eta barruan ariketa fisikoa, hitzaldiak, jokoak... Saioaren bukaeran hamaiketako Kontzeju tabernan.

BERASTEGI

17:00. Toka txapelketa Gaztainondo elkartean.

19:00. Presoen alde elkarretaratzea plazan.

19:30. Pintxo-potea herrian zehar.

BERROBI

SANANDRESAK

19:30. Festen hasiera.

Segidan. Zutik elektrotxaranga.

21:30. Gaztegunean zahagiardo afaria.

00:00. Gaztegunean, Basatiak kontzertua.

IBARRA HITZALDIA

17:00. Indarkeriaren aurrean saretze feminista! Emakume langileenganako biolentziaren eta autodefentsaz hausnartzen hitzaldia, Gaztetxean.

ELKARRETARATZEA

20:30. Azken ostiraleko elkarretaratzearen ondoren, Intziri taldearen emanaldia, Subegi elkartean.

Ondoren. Afaria, Subegin bertan.



LARRAUL KULTUR ASTEA

19:00. Sagardo-dastatze gidatua Astarbe sagardotegiaren eskutik Katilutxulon.

21:00. Bertso afaria Larraulgo ostatuan Amaia Agirre eta Unai Mendizabalekin.

LIZARTZA KULTURALDIA

22:00. Ainhoa Larrañagaren kontzertua, udal aretoan.

OREXA OSTIRAL KULTURALAK

22:00. Bihozkada taldearen kontzertua, Ostatuko ganbaran.

TOLOSA AZOKA

18:00-21:00. Iraupen eskiko materialaren azoka. Iraupen eskiak, berauen finkagailuak eta eski-bastoiak. Azokako dirua Zumardia eski-eskolaren autofinantzaketarako erabiliko da. Kultur etxean.

HITZALDIAK

18:00. Emakume atzeritarren parte hartze eta ahalduztze prozesua. Hakima Abdoun, Nasara lahdih Said, Mena Souilem, Zoubaida Foughali eta Narimene Mouaci Bahi. Udaletxeko pleno aretoan.

19:00. Emakumeon aurkako biolentziaren aurrean, guk zer? Indarkeriaren aurrean saretze feminista! Ezpala gaztetxean.

TTITRIJAI

22:00. Vida. Javier Aranda (Zaragoza). Helduentzat. Gazteleraz. 50 minutu. Topic.

KONTZERTUAK

18:30. Muga taldearen kontzertua Arkupe dendan, Korreo kalean.

22:30. Arima eta Tobogan Andaluz (Argentina). Bonberenean, sarrera 8 euro.

ZIZURKIL

DANTZARIEGUNA

19:00. Dantza pelikularen proiektzioa, gela balioanitzia.

Ondoren. Itziar, Gari eta Jokin Otamendirekin solasaldia.

LARUNBATA AZAROAK 30

ALEGIA

BABARRUN JATEA

14:00. Egun guztiko festa. Bazkarirako

tiketak salgai Iskiña eta Hilario Berri tabernetan.

BALIARRAIN

UDAZKEN KULTURALA

17:00. Esperimentu ginkana.

Esperimentuak egingo dituzte herriko haurrek guraso elkarteak antolatuta.

BERROBI

SANANDRESAK

13:00. San Andres meza.

Ondoren. Ogia banatuko da.

13:45. Erretirodunen bazkaria.

14:30. Gaztegunean bazkaria eta ondoren bertsoak: Haritz Mujika eta Amaia Agirre.

18:00. Antzerkia Ester Povedaren eskutik.

19:30. Mini disko. Umeak animatu mozzorro eleganteak janztera. Mozzorro festa erraldoia.

22:30-01:30. DJ Andoni.

IBARRA

BABARRUN FESTA HERRIKOIA

09:00-13:00. Ibarra babarrunaren X.

lehiaketa herrikoia.

12:00. Hitzolariak. Hitzak jolas: zaharrek jaso eta berriak sortu.

14:30. Babarrun jatea. Babarrunak, sakramentuak, postrea eta kantuak... Sari banaketa.

18:30. Kantu bira herrian barrena.

20:30. Afari merienda.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

09:30. Ezkurra jaten hitzaldia Cesar Lema biologoarekin kultur etxean.

11:30. Ezkurra jaten ikastaro praktikoa Asier Bastarrikarekin Katilutxulo elkartean.

16:15. Mus txapelketa Katilutxulo elkartean.

18:00. Patata tortilla lehiaketa zimiterioan.

20:00. Pig&Kiss taldearen kontzertua Zimiterioan.

LIZARTZA

KULTURALDIA

20:00. Txikiren bakarriketa: 40 urte eta aldapan bera niek. Udal aretoan.

TOLOSA

AZOKA

18:00-21:00. Iraupen eskiko materialaren azoka. Iraupen eskiak, berauen finkagailuak eta eski-bastoiak. Azokako dirua Zumardia eski-eskolaren autofinantzaketarako erabiliko da. Kultur etxean.

BONBERENEKA SKATE TXAPELKETA

11:00. Graffiti erakusketa.

16:30. XIX. Skate Txapelketa.

TOLOSA KANTARI

12:00. Kantujira, M. Luisa Agirre
doktorearen kaletik abiatuta.

ELKARRETARATZEA

12:00. Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde,
Trianguloan.

TITIRIJAI

12:00/18:00. Bi saio: 12:00 (Plaza Berria)
eta 18:00 (Zerkausia). Kale ikuskizuna. Solo.
Magali Bondulich (Argentina). Familientzat.
Hitzik gabea. 15 minutu.

12:00/17:00. Emeterio Arresetik
Triangulora (12:00) / Plaza Zaharratik
Euskal Herria plazara (17:00). *Pasacalles
medieval*. Titiriteros de Binefar (Zaragoza).
Kaleko ikuskizuna. Familientzat. Hitzik
gabea. 50 minutu.

17:00. *Oilar bat dago zure tellatuan*.
Titirigui (Madril). Estreinaldia euskaraz.
Familientzat. Euskaraz. 45 minutu.
Leidorren.

17:00/20:00. *Monta Titeres*. Galiot Teatre
(Katalunia). Kale ikuskizuna. Familientzat.
Hitz gabea. 15 minutu. Euskal Herria plazan.

18:30. *Chorpatelicos*. Titiriteros de Binefar
(Zaragoza). Familientzat. Gazteleraz. Topic.
KONTZERTUA

22:30. Red Baleine (Zaragoza) eta Grande
Days. Bonberenean, sarrera 8 euro.

UGARTE

GAZTAINA JATEA

20:30. Gastaina jatea Ugarteko elkartean.
Afal ondoren trikitrixa izango da.

ZIZURKIL

DANTZARIEGUNA

11:15. Taldeen topaketa. Artea dantza
taldea (Altzo), Anitz dantza taldea
(Anoeta), Alurr dantza taldea (Ibarra),
Oinargi dantza taldea (Villabona) eta
Bukalai dantza taldea (Zizurkil).

11:30. Bukalai dantza taldeak antolatuta,
plazan herri ezberdinetako dantzari
taldeak elkartu eta kalejira egingo dute
herrian zehar.

12:00. Plazan talde bakoitzak bere
emanaldia eskainiko du (eguraldi onarekin
Elbarrenan eta txarrarekin Intxaur
frontoian).

MURAL MARGOKETA

17:00. Mural margoketa.

22:30. Kontzertuak. Eztanda, Igitaia eta
Bassagain.

IGANDEA ABENDUAK 1

ALEGIA

MENDIIRTEERA

09:00. Bedaioko buelta. Tonto kaletik
kotxeetan abiatuko dira.

BALIARRAIN

UDAZKEN KULTURALA

18:00. Dantza filmaren proiektzioa
udaletxe azpiko aretoan.

BERROBI

SANANDRESAK

18:30. Talo jatea Solastokian Izer eta
Alabier trikitilariekin.

LARRAUL

KULTURASTEIA

17:00. Larraulgo gazteen eskutik, argazki
diaporama kultur etxean.

18:00. Talo eta gaztaina jatea Katilutxulo
elkartean.

TOLOSA

TITIRIJAI

11:30/14:00. Bi saio. *Monta Titeres*. Galiot
Teatre (Katalunia). Kale ikuskizuna.
Familientzat. Hitz gabea. 15 minutu. Euskal
Herria plaza.

TITIRIJAI

17:00. *Piccoli Circo de hilo*. Antonella
D'Adcenzi (Italia). Familientzat. Hitzik
gabea. 45 minutu. Leidor aretoan esakiniko
da.

18:30. *Erreka Mari*. Txotxongilo taldea
(8 Euskal Herria). Familientzat. Euskaraz. 50
minutu. Topic-en.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI

TXAPELKETA

17:00. Bertsolariak: Beñat Lizaso Alberdi,
Haritz Mujika Lasa, Iban Urdangarin
Lardizabal, Jokin Uranga Isuskiza, Jon Maia
Soria eta Oihana Iguaran Barandiaran. Saroi
Jauregi Aiestaranek aurkeztuta. Usabal
kiroldegian.

KONTZERTUA

18:00. Iker Piris bakarlariaren kontzertua, 3
tabernan.

ZIZURKIL

HITZALDIA

18:00. Osasungintza sozialista.
Aurrekariak eta erronkak. Kaxilda
gaztetxean.

ZINEMA



‘SI YO FUERA RICO’

Larunbata (19:30 eta 22:00), igandea
(19:30) eta astelehena. (21:00)

**Gurea aretoa,
Amasa-Villabona.**



‘ADULTS IN THE ROOM’

Larunbata (20:30) Jatorrizko bertsioa,
gaztelaniazko azpidatziak. Astelehena
(20:30). Ikuslearen eguna.

Leidor antzokia, Tolosa.



‘MIENTRAS QUE DURE LA GUERRA’

Igandea (21:00).
Leidor antzokia, Tolosa.



‘ASTO ERREGEA’

Igandea (17:00).
**Gurea aretoa,
Amasa-Villabona.**

Munduko haur jaiotze tasarik baxuena



JOKIN SOLOZABAL

Espainiako hauteskundetan guztiok pozez beterik abertzaleek ez dute galtzen Gipuzkoan boterarik mundu osoak ez du guk baino ingeniari hoberik baina jaiotze tasan ez dugu marka jartzeko biderik eta 'Industry 4.0 k' ez du egiten umerik.



Doinua

Gabon denori
ongietorri

Kaleak sutan

Albisteak aldatuz doaz kazetari ezberdinak etxeko telebista txikian agertzen diren heinean. Bakoitzak hiru segundo eskas ditu ahal dituen hitz gehienak botatzeko, arrapaladan eta ezer ahaztu gabe. Eta gertakarien berri eman ondoren, hurrengo kazetariak ordezkatzen du arnasik gabe geratzen ari zena.

Irudiak hala ere, kazetariak ez bezala, ez dira aldatzen. Pertsona anitz ageri dira istiluetan, hiru eta herrialde askotarikoak, baina oiuhu bat bera dute. Jendearen eskubide urratuak salatzen dituen oihoa.

Parisen hasi ginen horrelako protestak ikusten. Nahiz eta segituan herrialde osora zabaldu eta Hendaian ere, Irunetik bost minutura zeuden etxeen balkoietan, ikusi genituen gidarien txaleko hori famatuak. Horrela, biolentzia hedatuz, eta bide batez, indartuz joan zen; egunkarien lehen orriak betez eta gizartea ohartaraziz Frantziako iraultza berriaz. Jendea kexatzen ari zen. Baina momentu hartan ez genuen pentsatu, ia urtebete beranduago, biolentziak amaierarik edukiko ez lukeenik.

Metroko tiketaren prezioa, gasolinaren igoera edo arrazoi politikoak direla bitarteko, Iran eta Iraken, Bolivia eta Txilen, baita Hong Kong beran ere berdinak ikusi direlako. Jendea nazkatuta dago. Nazkatuta errespetua ez delako inon ageri, klase sozialak geroz eta bereiziagoak daudelako eta beraien ahotsak zapaldu egiten direlako. Kalera atera dira, eta behingoagatik beraien ahotsak urrutira iritsi dira.

Kezkagarriena, hala ere, beraien ahotsez gain iristen diren hildako eta zaurituei buruzko berriak dira. Jendeak berdintasuna soilik eskatzen du, duintasunez tratatzea.

Nola da posible abiapuntu hori edukita, oinarrizko gauzak eskatuta, beraien eskaera ulertua ez izatea? Kaleak gudu eremu bihurtzea? Zergatik zerbait egin dezaketenez biolentziaz bakarrik erantzuten dieten? Dirudienez, ez dutelako jendearen amorrua ikusi, entzun edo sentitu nahi. Eta ondorioz, jendeak kallean jarraitzen du amorrua nola bideratu jakin ezinik, begietako estalkia jarrita dutenek, ez dutelako erreakzionatzen.



JONE ALBERDI
IKASLEA

Jendea nazkatuta dago. Nazkatuta errespetua ez delako inon ageri, klase sozialak geroz eta bereiziagoak daudelako eta beraien ahotsak zapaldu egiten direlako

POEMA KARLOS LINAZASORO



Kantu

*Mendian aurpegia utzi dut.
Haizearen soinean.
Maldan behera nator,
poliki,
bihar izanen naizelako kantu.*

*Hegazti ustelgabe, zatoz:
zuk salbatuko nauzu
hegan oker egitetik.*

Zezilia Erromakoa emakumea baitzen...

29

Orriotan idazteko aukera izan nuen azken aldian musikaz idatzi nuen, abesbatza lehiaketa aitzakiatzat hartuta.

Gaurkoan, berriz ere bide beretik jarraitu behar dut. Ez dugu alferrik pasa berria musikarion eguna, Xexili Deuna.

Duela hilabete inguru idatzi nuen bi emakumezko egon zirela abesbatza lehiaketako epaimahaian, inoiz baino emakumezko zuzendari gehiago pasa zirela taula gainetik eta, itxuraz behintzat, bide onean gindoazela. Baina aparra ur gainean nola, halaxe jaitsi da nire baikortasuna ere, nazioarteko ezohiko ikuspegitik herriko egunerokora itzultitakoan.

Ezin ukatu musikariz betetako herria dela Tolosa, eta izango dela hemendik aurrera ere, bizkarrean musika instrumentu bat hartuta ikusten diren haurrak horren erakusgarri baidira. Eskolak gainezka daude ikaslez, berdin neskak eta mutilak, eta hori

bera bakarrik albiste ona da. Baina zer gertatzen da eskolatik ateratzeko garaia iristen zaienean?

Bada, hortxe dator erreferenteen garrantziaz jabetzeko unea. Nahiz eta musikaren hainbat arlo klasikotan ohikoagoa den emakumeak ikustea, ezin dut ukatu urtero ariketa berbera

egiten dudala Urte Berri eguneko kontzertua ikustean: Zenbat emakume ote daude aurtengogan orkestran? Inoiz ez ditut bi esku behar izan.

Eta zer esanik ez, agertoki modernoagoetara jotzen badugu. Zenbat dira emakumeak rock taldeetan –askotan arrazoi estetikoengatik aukeratzen

den abeslaria salbu? Zenbat txaranga? Horrelako erreferenterik gabe, neska gazteentzat oso zaila da esfera publikoan jotzera pasatzeko urratsa ematea eta, gainera, eragina dauka instrumentuen aukeraketan ere. Panpinak neskentzat eta kamioiak mutilentzat... Zeharkako flauta neskentzat

eta tronpeta mutilentzat... Gitarra bai, neskentzat eta mutilentzat ere. Baina akustikoa neskentzat eta elektrikoa mutilentzat, badaezpada.

Ez dut esango etsita nagoenik, edo ezer hobetu ez dugunik. Baina ez gaitzen konformatu hain gutxirekin. Nik neure aletxoa jartzen jarraituko dut eta, nire apalean, ahal dudan guztietan aterako naiz soinua jotzera, begira gelditzen zaizkidan neskek jakin dezaten beraiek ere badutela tokia kalean.



IRATI HARTSUAGA
ITZULTZAILEA

Nik neure aletxoa jartzen jarraituko dut eta, nire apalean, ahal dudan guztietan aterako naiz soinua jotzera, begira gelditzen zaizkidan neskek jakin dezaten beraiek ere badutela tokia kalean

EGURALDIA



OSTIRALA

Eguraldi lasaia. Egunsentian euri tan-taxkaren bat izango den arren, goizean bertan alertu eta ostarteak zabaltzen hasiko dira, eguerditik aurrera eta arratsaldean giro nahiko argia geratuz, nahiz eta, zerua erabat garbi ez den



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

agertuko. Haizeak hego ukitua izango du goizean, arratsaldean mende-baldetik finkatuz. Termometroak beste egun batez antzeko balioetan mugituko dira, maximoak 15-17.

LARUNBATA

Giro lasaiarekin hasiko da eguna baina arratsaldean egoera okertu egingo da. Goizean hego-mendebaldeko haizearekin giro lasaia izango da. Erdi eta goi-mailako hodei ugari izan arren, ateri eutsiko dio eta gainera giro nahiko epela izango dugu. Arratsaldeko lehen orduan ordea, fronte bat sartu, haizeak ipar-mendebaldera egin, zerua erabat estali eta euritara joko du. Euri zaparrada mardulak izango dira eta nahiko sarri botako du. Termometroek 15-17 gradu bitartean joko dute goia.

IGANDEA

Negu-ukitua hartuko du eguraldiak. Goizean eta eguerdira bitarte giro lasaia izango da. Haizeak hego-mendebaldeko ukitua izango du eta zeruan hodeiak nagusi arren, ateri egongo da. Eguerditik aurrera haizeak ipar-mendebaldera egingo du eta giroa nahasten hasiko da. Arratsaldean sartuko den fronte batek euria utziko du. Euri gehien, batez ere, arratsalde erditik aurrera izango da, non zaparrada mardulak botako dituen, sarri. Goietan aire hotza sartuko duenez ezin da baztertu ekaitzak jotzea ere. Tenperaturak behera egingo du.

OSTIRALA
29



IGANDEA
01



LARUNBATA
30



ASTELEHENA
02



IRAGARKI LABURRAK



LAN ESKAINTZA

Etxeko lanak. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Interesa dutenek deitu 688 888207ra, 12:00 eta 14:00 artean.

LAN ESKAINTZA

Garbiketa lanak. Tolosan, esperientzia duen pertsona bat behar dugu elkarte bat garbitzeko. Lanaldi erdia goiz eta arratsalde (asteazkenetik astelehenera, jai egunak ere). Ezinbesteko baldintza: esperientzia izatea. Interesa duenak jarri kontaktuan: 943 67 06 26 telefono zenbakian.

LAN ESKAINTZA

Ile apaintzailea. Irrika Ileapaindegia esperintziadun ile apaintzaile bat behar du, arratsaldetan lan egiteko. Lanaldi erdia. Interesa duenak deitu 943508493ra.

FARMAZIAK



AZAROAK 29, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Jesus Mari Etxebeste Elozegi. Gernikako arbolaren lorategiak 3. Telefonoa: 943 65 10 40.

AZAROAK 30, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Ignazio Olarreaga Aranburu. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 5118.

ABENDUAK 1, IGANDEA IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

ABENDUAK 2, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Lurdes Azpiroz Galarza
Amarotz auzunea, 9.
Tel.: 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza Eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, agenda, solasaldi politikoa, Tolomendi landa garapen agentziaren tartea, Amalurra ekologiar buruzko tartea, errezetan atala Aintzane Artolarekin, azken ostiraleko tartea eta eskualdeko musikari batek eginiko proposamena.

12:00. Entzuteko jaiok Musika tartea.

16:00. Zebrabidea Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Kantazgora Tolosaldeko musikariaren proposamenekin osatutako musika saioa.

21:00. Aire biziak Musika saioa, Joxi Ubedarekin.

LARUNBATA

10:00. Trikiti musika.

12:00. Hauspo artean Trikitiari buruzko saioa Eneritz Aulestiarekin.

16:00. Gure txokotik Elkarriketen tartea.

18:00. Entzuteko jaiok Musika tartea.

21:00. Mailu ta akuilu Musika saioa.

IGANDEA

10:00. Asteazken zehar entzundako onena.

14:00. Hari Naizela Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

16:00. Entzuteko jaiok Musika tartea.

18:00. Kantazgora Tolosaldeko musikariaren proposamenekin osatutako musika saioa.

20:00. Entzuteko jaiok Musika tartea.

21:00. Mestibull DJ Bullekin munduko musikak.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza Eguneko berriak, agenda, asteburuari begirada, Postalak bidaiariaren tartea, gaurkoan Iker Ibarluzearekin, Patxadaz eginiko elkarriketak.

12:00. Entzuteko jaiok Musika tartea.

16:00. Zebrabidea Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Hauspo artean Trikitiari buruzko saioa Eneritz Aulestiarekin.

107.6 fm
www.ataria.eus

Gipuzkoako

Bertsolari Txapelketa
2019

Abenduak

1

17:00

Tolosa. Usabal kiroldegia

Oihana Iguaran Barandiaran

Jon Maia Soria

Jokin Uranga Isuskiza

Iban Urdangarin Lardizabal

Beñat Lizaso Alberdi

Haritz Mujika Lasa

Aurkezlea: Saroi Jauregi Aiestaran



Antolatzailea



www.bertsotzale.eus

Laguntzailea



Zu zeu zara zure influencer bakarra.



Audi A4 Avant berria hilean 290 eurotik *

Bi pertsona mota daude: zu eta gainontzekoak. Pertsonalitate propioa duzulako eta ez zaudelako azken joeren menpe. Zure sena bakarrik jarraitzen duzulako. Eta senak esaten dizu Audi A4 Avant ez dela beste auto bat. Diseinu elegantea du eta kirol jenio bizia, eta horren adierazle dira LED motako aurreko argiak, MMI Navigation plus sistema edo ECO marka duten Mild hybrid motor aurreratuak. Aproposak dira pauso bat aurrera emateko eta bide propioa irekitzeko, zu bezala, inor eta ezer jarraitu gabe.



Autowag Tolosa

Usabal poligonoa, 2/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 Kw (136 CV) S tronic. CO2 isurketak (g/km): 137-151 (NEDC: 104-113). Kontsumoa (l/100 km): 5,2-5,8

► Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 KW (136 CV) S tronic-ra egokitutako Audi Financial Services-en eskaintza, 36 hilabetera eta guztira 45.000 kilometrotarako Renting kontratuarekin. 6.645 euroko sarrera bat ordaindu behar da, Volkswagen Renting SA-ren bidez. Kuotak eta sarrerak ez dute BEZik. Gorpil zorroen aldaketarik gabe. Eskaintzak Red Oficial Audi-ren mantenu eta higitze zerbitzu guztiak barnebiltzen ditu, baita garantia (matxuren konponketa), frankiziarik gabeko arrisku oroko aseguruia eta hitzartutako epealdiko bidaia asistentzia. Beste bertsioetarako edota ekipamendurako Audi kontzesionarioan galdetu. Eskaintzaren azken eguna 2019ko urriaren 31. Audi Financial Services marka Volkswagen Renting SA-k merkaturatzen du. Irudiko autoa ez da eskaintzako bera.